




Argazki zaharrak: I. Ojanguren, Guregi.puzkoa.eus



BBE. MUNDAKAKO  
ITSASADARREKO  
ETA OGOÑO  
LURMUTURREKO  
ITSAS GUNEA



GAZTELUGATXE  
babestutako biotopoa

KANTAURI  
ITSASOA

URDAIBAIKO  
ITSASADARRA

URDAIBAIKO  
IBAI SAREA

**ikurrak**

- |  |  |   |
|--|--|---|
|  Abiapuntua       |  Taberna-jatetxea     |  Atsedonlekua                  |
|  Helmuga          |  Natura2000sarea      |  Eliza                         |
|  Turismo bulegoa  |  Gailurra             |  Ermita                        |
|  Garraio publikoa |  Ikuspegi panoramikoa |  Fauna eta flora interesgarria |
|  Aparkalekua      |  Iturria              |  Hondartza                     |

Bakio

**BAKIO**



Atxulo  
(36 m)

Mendialde

Eneperi

San Pelaio

Aznabarra

Burgoa  
(451 m)

MATXITXAKO  
lurmuturra

Talaia

LURGORRI

Ermu

Arribolak

Errepidea albo  
batera urzi eta  
Matxitxakako  
auzo bideak  
jarraitu.

Gibebe

Tarte batean  
errepideak joan  
beharko duzu.  
Kontu handiz ibili!

Aritzatxu

**BERMEO**



Bizkaiko kostaldea ederra da benetan. Bermeotik Bakio aldera joko dugu txango honetan eta bidean Gaztelugatxe biontopo babestua zeharkatuko dugu. Asko dira Matxixako eta Gaztelugatxe artean babestutako eremu natural honek erakutsiko dizkigun altxorrak. Goazen horiek ezagutzera!

Bermeora trenez zein autobusez heltzeko aukera dugu eta gero Bakiotik autobusez bueltatzeko aukera izango dugu, baina kontuz, Bakio-Bermeo autobusa uda garaian baino ez baitago.

Bermeotik Bakio alderako errepidea izango dugu gaurko txangoaren lehen zatian ardatz. Kontu handiz joango gara errepide bazterretik Matxixakoko eskola zaharrera heldu arte. Hortik aurrera auzo errepide zaharretik jarraituko dugu Matxixakoko lurmuturreraino. Bidexka txiki batek lotzen du Matxixako Lurgorrirekin, aldapatsua da, baina Gaztelugatxe aldera ikuspegi ederra eskaintzen digu.

Lurgorritik Ermura errepide zaharretik egingo dugu eta behin Ermun, Gaztelugatxera jaitsiko gara. 240 eskailera igo beharko ditugu ermitara heltzeko. Azken eskaileretako batean aurkituko dugu San Juanen hirugarren oinatza.

Gaztelugatxetik Eneperira igoko gara eta ostean Bakio aldera jaisten hasiko gara, Baselizen ibilbidetik, mahatsondoen hosto horiak dituen seinaleei jarraituz.

Kostaldeko edertasunak sorginduko gaitu eta konturatu orduko Bakiora helduko gara.

## matxixakoko guda 1937


1936an sortu berria zen behin behineko lehen Eusko Jaurlaritzak "Euzkadiko Gudontzidia" jarri zuen martxan, Euskal Herriko kostaldea, portu nagusiak, arrantza, merkantzien joan etorria eta jendearen erbesteratzea babesteko. Zenbait arrantza ontzi gerraontzi (Bouak) bihurtu zituzten. 1937ko martxoaren 5ean, itsasontzi horietako batzuek itsas armada nazionalako gerraontzietan aurre egin zieten.

Urtero, Matxixakoko guda izeneko eskulturaren aurrean bataila hartan parte hartu zuten gudariak omentzen dituzte; *Canariasen* aurka borrokatu ziren *Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa* eta *Donostia* gudontzietako gudarien omenez.

## FITXA TEKNIKOAK

14,6  
km  
LUZERA

220  
m  
MALDA



Ikuspegia Bakio aldera



Matxixakoko guda eskultura



Itsasargia



Armeria euscadiensis

gaztelugatxe...  
... lurra eta itsasoa, aurrez aurre

## Matxixakotik Gaztelugatxera

Matxixakoko lurmuturrak natura eta kultura altxor ugari ditu: Itsasargi zahar eta berria, talaiariaren etxea, kanoi-bateria, bolborategia edota *armeria euscadiensis* izeneko lore eder bezain hauskorra. Itsasargi zaharrean gainera, itsas-hegazti eta zetazeoak behatzeko lekua egokitu dute, lurmuturrak baitira itsasoan gehien sartzen diren lur eremuak, behaketetarako aproposak.

Gaztelugatxe, berriz, itsasoari aurre egin eta Kantauriko uretan barneratzen dela dirudi. Izenak berak adierazten duen moduan, XI. mendean gaztelu bat egon zen bertan. Kondaira zaharrek diotenez San Juan Bermeoko portuan lehorreratu ostean 4 pausotan heldu zen Gaztelugatxera eta piratak ere bertatik igaro ei ziren.

Historia handiko lekua da Gaztelugatxe, erakargarria, menderaezina; babestutako biotopoaren harrizko bihotza, olatuen enbatar aurre eginez bizi dena.



I. Ojanguren, Guregipuzkoak

## Gaztelugatxe. Babestutako biotopoa



Gaztelugatxe | San Juan

Aketx

Matxixako